

**«ZANGOZAKO HIRIA»
XXVII. HAURRENDAKO LITERATURA-LEHIAKETA
HITZ LAUZ EDO BERTSOZ
2025**

OINARRIAK

- 1.** Lehiaketa Zangozarekin zerikusia duten gaiei lotuko zaiei (edozein arlotan). Lehiakideek obra bakarra aurkeztu ahal izanen dute bi modalitateetako batean (gaztelania edo euskara), baldin eta jatorrizko lanak eta argitaragabeak badira eta lan osoan edo zati batean ez badakarte lan propioen edo beste pertsona batzuenen kopia, plagioa, birsorkuntza edo aldaketarik. Lanak banaka zein taldean egin ahal izanen dira.
- 2.** Lanak aurkezteko epea **maiatzaren 2an** hasiko da, luzaezina izanen da eta **2025eko ekainaren 10eko 14:00etan** amaituko da.
- 3.** Lehiakideek euren lanak aurkeztu edo bidaliko dituzte Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxera, Alfontso Borrokalaria karrika, 20.
- 4.** Lehiaketa behin amaituta, lehiakideek hilabete izanen dute lanak erretiratzeko, sarituak izan ezik, horiek udal jabetzan geratuko baitira. Ezarritako epean erretiratzen ez diren lanak suntsitu egingen dira, eta egileek haiei uko egiten dietela ulertuko da, eta erreklamazio edo kalte-ordainerako eskubide oro galduko dute. Zangozako Udalak ez du bere gain hartzen balizko kalteen, galtzeen, ezta obrak itzultzearen erantzukizunik ere lehiaketa amaitu ondoren.
- 5.** Aurkeztutako lanetan parte-hartzailearen adina eta obraren izenburua agertu beharko dira. Gainera, gutun-azal itxi bat erantsiko da, eta bertan, kanpoaldean, **izenburua, modalitatea eta aurkezten den maila** jasoko dira. Barruan egilearen/egileen datu pertsonalak jarri beharko dira (izena, abizenak, helbidea, telefonoa, adina, zein ikastetxetan ikasten duen, egiten duen ikasturtea eta zein modalitatetan parte hartzen duen: euskaraz edo gaztelaniaz).
- 6.** Lanen gehieneko luzera hiru orrikoa izanen da, alde batetik idatzita eta tarte bikoitzean.
- 7.** Zangozako Udaleko Kultura eta Jaietako Batzordeak izendatutako kideek osatuko dute epaimahai kalifikatzailea.
- 8.** Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da eta **2025eko uztailaren 4a baino lehen** jakinaraziko da.
- 9.** Lehiaketa honetara aurkeztu ahal izanen dira Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasketak egiten dituzten haur guztiak.
- 10.** Bi modalitate ezartzen dira: gaztelania eta euskara, eta horietako bakoitzean **HIRU** maila. Maila bakoitzak sari bana izanen du: eskola-erabilerako materiala (informatikoa, kirolekoa...). Saritutako pertsonak hiriko edozein establezimendutan erosi ahal izanen dute. Erosketa egiteko epea 2025eko irailaren 11tik abenduaren 12ra izanen da. Finantzaketa Udalaren Aurrekontu Orokorreko 3385 2262008 partidaren kontura egingen da.

GAZTELANIAZKO MODALITATEA

- **Lehen maila Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako** modalitateari dagokio, eta sarituek hiriko edozein establezimendutan erosi ahal izanen duten eskola-erabilerako materialean (informatikoa, kirolekoa...) 100 euroko **sari bakarra** emanen da. Finantzaketa Udalaren Aurrekontu Orokorreko 3385 2262008 partidaren kontura egingen da.

- **Bigarren maila Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako** modalitateari dagokio, eta sarituek hiriko edozein establezimendutan erosi ahal izanen duten eskola-erabilerako materialean (informatikoa, kirolekoa...) 100 euroko **sari bakarra** emanen da. Finantzaketa Udalaren Aurrekontu Orokorreko 3385 2262008 partidaren kontura egingen da.

- **Hirugarren maila DBHko 1. eta 2. mailetako** modalitateari dagokio, eta sarituek hiriko edozein establezimendutan erosi ahal izanen duten eskola-erabilerako materialean (informatikoa, kirolekoa...) 100 euroko **sari bakarra** emanen da. Finantzaketa Udalaren Aurrekontu Orokorreko 3385 2262008 partidaren kontura egingen da.

EUSKARAZKO MODALITATEA

- **Lehen maila Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako** modalitateari dagokio, eta sarituek hiriko edozein establezimendutan erosi ahal izanen duten eskola-erabilerako materialean (informatikoa, kirolekoa...) 100 euroko **sari bakarra** emanen da. Finantzaketa Udalaren Aurrekontu Orokorreko 3385 2262008 partidaren kontura egingen da.

- **Bigarren maila Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako** modalitateari dagokio, eta sarituek hiriko edozein establezimendutan erosi ahal izanen duten eskola-erabilerako materialean (informatikoa, kirolekoa...) 100 euroko **sari bakarra** emanen da. Finantzaketa Udalaren Aurrekontu Orokorreko 3385 2262008 partidaren kontura egingen da.

- **Hirugarren maila DBHko 1. eta 2. mailetako** modalitateari dagokio, eta sarituek hiriko edozein establezimendutan erosi ahal izanen duten eskola-erabilerako materialean (informatikoa, kirolekoa...) 100 euroko **sari bakarra** emanen da. Finantzaketa Udalaren Aurrekontu Orokorreko 3385 2262008 partidaren kontura egingen da.

11. Epaimahaiak sariak eman gabe uzteko eskubidea izanen du, baita mailetako batean sari bat baino gehiago ematekoa ere.

12. Saritutako lanak 2025eko Jaietako Egitarau ofizialean sartuko dira.

13. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea dakar.